



Alberto Cebollada

Kuadriatleta



«Kuadriatletak lau katu baino ez gara»

Tuterako kirolaria punta-puntan dabil kirol honetan; munduko txapeldunorde da, eta oraindik orain Espainiako Txapelketa irabazi du Ibizan

Ramon Olasagasti

Anfibio deitzen dute, txikitik uretatik ateratzen ez zelako. Egun, Tuterako Institutuan naturako begiraleei ematen die eskola, eta ordu libreetan entrenatu egiten da, gogotik.

• **Nola hasi zinen triatlloan?**

Bultzada handiena Donostiako Triatlóiak eman zidan: 1994an ikusle moduan joan nintzen, Munduko Kopako proba izan zenean. Ikusgarria izan zen, eta kirol ikuski-zun hartan partaide izan behar nuela erabaki nuen; Kontxako ingurune ederrak ere izango zuen eraginik... Orduan, entrenatzen hasi nintzen eta belauneko lesio bat osatzen. Hurrengo urtean Donostiako triatlóia egin nuen, eta 50. postuan amaitu nuen. Oroitzen naiz Kim Carter neska hegoafrikar batek gainditu ninduela, eta hiru kirolak nik baino hobeto egin zituela. Horrek markatu egin ninduen. Harrezkero, serio entrenatzen hasi nintzen beste neska batek ez irabazteko. Ez, txantxa da...

• **Kuadriatloirako pausoa nola eman zen nuen?**

Bost urtetan aritu naiz triatlóietan lehiatzen, eta piraguaren konbinazio posible hori entzuten nuen aldiro pentsatzen nuen berriro hasi behar nuela arranean, piraguismoan ondo moldatzen nintzelako eta triatlóian txukun samar. Ez nuen, ordea, piraguarik; nirea saldu egin nuen Leonera INEF ikastera joan nintzenean.

Iazko otsailean jakin nuen Espainiako I. Kuadriatloia Txapelketa jokatzeko zela, eta piraguan entrenatzea eta probatzea erabaki nuen. Maiatzean Ibizara joan eta bigarren geratu nintzen, alemaniar baten atzetik.

• **Igeri egiten erakusten duzu; igeriketako proba izango da, ziurrenik, hobekien egiten duzuna. Eta okerrena?**

Igeri egitea ondo doakit, bai, nahiz eta inoiz ez naizen igerilaria izan, baina teknika ezagutzen dut, eta Tuteran zuzentzen dudana taldearekin, Arenas klubarekin, entrenatzen naiz normalean. Piraguarekin ere moldatzen naiz, aurrez neukan eskarmentuari esker; bizikleta asko gustatzen zait, baina gehiegi pisatzen dut (80 kilo), eta horrek aldapa gora ordaina pasatzen dit. Baina gehien mugatzen naue-na korrikako proba da, triatlóian hor galduten ditut postuak.

• **Aurten ere Ibizan jokatu da Espainiako Kuadriatloia Txapelketa. Beldurrez joan zinen, lesio baten erruz. Azkenean, ordea, harrituta geratu zara zeure buruarekin?**

Bai, azken orduan zuntz haustura txiki bat izan nuen, eta ia ez parte hartzekotan izan nintzen. Fisioterapeuta batengana joan eta astebete osoa hartu nuen atsedean proba jokatu aurretik. Proban bertan ondo sentitu nintzen, batez ere igeri eta piraguan. Bizikletan, erdi paretuan, zazpi minutuko aldea ateratzen nion bigarrenari eta erritmoa lasaitzea erabaki nuen; korrika, nire kuadrizepsek atsedean eska-

tzen zuten, pauso bakoitzean anarkikoki uzurtzen zirela, baina eutsi nion, nolabait. Hala ere berritu nuen txapela.

• **Triatlóia bera ez da jende askok egiten duen kirola. Kuadriatloian zenbat lagun izaten zarete lehiaketetan?**

Kuadriatletak lau katu gara. Espainian 50 bat lagun. Pentsatu behar da triatlóia egiteko ordu asko behar direla eta kirol asko konbinatu behar direla; bada, piragua sartzen delarik, materiala eta entrenatzeko leku jakin bat behar dira, material hori batetik bestera garraiatzea ere ez da erraza, eta are gutxiago probetan parte hartzea. Eta zer esanik ez atzerrikoetan.

• **Lehiakortasuna faltako da, beraz.**

Espainian, kirol bezala onartua eta lagundua ez dagoenez, jendeak ez du erakarpenik sentitzen, alde txarrak baino ez dizkio ikusten. Kuadriatleta on asko dago, baina nazioartean lehiatzeko lau modalitateetan hobe izan beharra

dago.

• **Triatlóit edo kuadriatloit bitztea ezinezkoa izango da, noski. Zure kasuan urrun dago kirol profesionala izatetik?**

Dirua, ezta pezetarik ere. Alderantziz, dirua kostatzen zait, baina hauxe da maite dudana, eta nahiago dut lehiaketetara joaten gastatu, beste ezertan baino. Babesleek materialarekin laguntzen didate: Tuterako Ciclos Gamen eta Iruñeko Gokak bizikletekin, Tuterako Natural Sportek osagaiekin, Isostarrek kirol elikagaiekin eta Miguel Indurain Fundazioak eta Arenas taldeek lehiaketa denboraldiko aurrekontua osatzen laguntzen didate.

• **Eliteko kirolari alde hori utzita, naturako begiraleen irakasle zara. Azaldu ezazu zertan datzan, zehazki, zure lana.**

Eduki dezakedan lanik onena da, naturarekin harremanetan egiten diren kirol jarduerak maite ditudalako. Tuterako Institutuan begiraleak prestatzen ditut, mendiko bizikletan, senderismoan, zaldi edo nautika turismoan eta antzeko jardueretan gidari edo begirale izan daitezten. Tuteran, zehazki, Bardeak, Ebro ibaiak eta Moncayoko Parke Naturalak eskaintzen dizkiguten aukerak baliatzen ditugu horretarako.

• **Naturarekiko harreman hori garrantzitsua da, beraz, zuretzat?**

Batzuek nekea besterik ez dute ikusten, batez ere eguraldi txarra egiten duenean, baina nik maite dut, eta nire prestakuntza fisikoaren parte da, ze astelehenetan senderismoa egiten dugu, astearteetan mendiko bizikleta, asteazkenetan eskalada, ostegunetan zaldi gainean ibiltzen gara eta ostiralean piraguan...

• **Naturarekiko harreman hori ez al da desitxuratzeko lehiaketarekin?**

Lehiketetan ez dakizu nondik zoazen ere, horregatik aukeratzen ditut oso ondo probak, dozena bat urtean, gehiago ez. Beste guztia entrenamendua da, ahal dela naturan bertan.

KUADRIATLOIA

- Espainiako txapelduna Ibizan, 2002an
- Espainiako txapelduna Ibizan, 2001ean
- Lehena Kuadriatloiko Munduko Kopako Korsikako proban. 2001eko abuztua.
- Txapeldunorde Kuadriatloiko Munduko Txapelketan. Seldcany (Txekiar Errepublika). 2001eko abuztua.

TRIALOIA

- Nafarroako txapeldun, 1997, 98, 99 eta 2000 urteetan.
- Nafarroako Triatló Ligako txapeldun 2000. urtean.
- Triatlóiko Ligan txapeldun (Zaragoza, Huesca, Errioxa eta Nafarroa), 1998.
- Logroño Hiria triatlóian txapeldun, 1998 eta 1999 urteetan.

DUATLOIA

- Nafarroako txapeldun, 1998an.

MENDIKO BIZIKLETA

- Laugarrena Coronas Openean. Sotoserrano 91.
- Sunn Co-factory taldeko kidea, 1998an.

PIRAGUISMOA

- Euskadiko abiadurako txapeldun K-1ean. Gasteiz, 1988.
- Bigarren Bidasoa ibaiaren Nazioarteko jaitsieran. 1988.
- Txapeldun Euskal Herriko, Gaztela-Leongo eta Zaragozako hainbat probatan.

Piraguismoan hasi zen Cebollada.

